



Andoaingo Udalak 100 jarduera baino gehiago jarri ditu martxan COVID19ari aurre egiteko

- **Osasun-alerta hasi zenetik asteen batez beste 14 jarduera ezberdin implementatu dira**
- **Neurri horiek guztiak hartzerakoan, andoaindarren ongizatea lehenetsi da, eta inor ez dadila atzean geratu**

COVID19 iritsi eta osasun-alerta deklaratu zenetik, andoaindarren egunerokotasunean eragina izan du. Antzeko zerbait gertatu da Andoaingo Udalaren eguneroko kudeaketarekin. Garai gogor batetan, Udalak bere jarduna egokitu egin behar izan du, eszenatoki ezezagun berri bati aurre egiteko, erabakiak ia etengabe hartuz.

Hilabete eta erdi honetan, Andoaingo Udalak 100 jarduera baino gehiago jarri ditu martxan COVID19ri aurre egiteko. Horrek esan nahi du astero batez beste 14 jarduera desberdin hartu direla osasun-alerta hasi zenetik.

Eta neurri horiek hartzerakoan, andoaindarren ongizatea lehenetsi da, erabaki guztien erdigunean egon baita. Udalaren lehenetasunen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: egoera ahulean dauden pertsonetikiko hurbileko arreta eta harreman zuzena izateko ekintzak, eta autonomoi, merkataritzari, ostalaritzari eta antzekoei zuzendutako laguntza-lerroak abian jartzea, establezimenduak nahitaez itxi direlako edo jarduera ekonomikoa nabarmen murriztu delako.

100 neurrien artean, oso jarduera desberdinak daude: langileen telelana antolatzea, instalazioen, parkeen edo espazio publikoen itxierekin zerikusia duten neurriak, kultura eta kirol agendari mugak ezartzea, egutegi fiskala berdefinitzea ordainketa-epeak zabalduz, garbiketa- eta desinfekzio-brigadaren errefortzuak, adinekoei eta desgaitasun-txartelaren titularrei banakako deiak egitea edo Etxeko Arreta Etxeko Zerbitzuaren errefortzua ematea.

Modu transbertsalean lan egin da, jarduera bakoitza udaleko sail ezberdinen eta udalaz gaindiko erakundeen artean koordinatuz, andoaindarren osasuna bermatzeko helburua lehenetsiz.

Gobernu taldeak eskerrak eman nahi dizkie Udaleko langile guztiei; izan ere, haien inplikazioarekin posible egin dute erakundeak modu aktiboan eta eraginkorrean funtzionatu ahal izana, baita unerik zailenetan ere.

Era berean, andoaindarren erantzunkidetasuna nabarmendu nahi da, jarrera eredugarria izanik, interes orokorra babesten lagundu baitute, elkarrekin COVID19ri aurre egiteko.

Datozen egun eta asteetan, lanean jarraituko da, orain arte bezala, Andoaingo herritarrek senti dezaten beren Udala ondoan dutela eta, elkarrekin eta inor atzean utzi gabe, aurrera egiten dugula koronabirusa gainditzea lortu arte. Animo eta lortuko dugu!

https://www.andoain.eus/documents/131314/0/2020.05.02_COVID19-kronograma-EUS.pdf/0b7f74f1-65f0-1d7d-fef4-397b41cd5a6b



El Ayuntamiento de Andoain ha puesto en marcha más de 100 actuaciones para hacer frente al COVID19

- **Supone una media de 14 actuaciones a implementar por semana desde que comenzó la alerta sanitaria**
- **A la hora de tomar todas estas medidas, ha prevalecido el bienestar de las y los andoaindarras y que nadie se quede atrás**

Desde la llegada del COVID19 y la declaración de alerta sanitaria, el día a día de las y los andoaindarras se ha visto afectada. Algo similar ha pasado con la gestión diaria del Ayuntamiento de Andoain. En un tiempo record, el Ayuntamiento se ha tenido que adaptar para afrontar un nuevo escenario desconocido, con una toma de decisiones prácticamente continuada.

En este mes y medio, el Ayuntamiento de Andoain ha puesto en marcha más de 100 actuaciones para hacer frente al COVID19. Esto supone que cada semana se han tomado de media 14 actuaciones diferentes desde que comenzó la alerta sanitaria.

Y a la hora de tomar estas medidas, ha prevalecido el bienestar de las y los andoaindarras, que han estado en el centro de todas las decisiones. Entre las prioridades del Ayuntamiento, destacar las acciones dirigidas a mantener una atención cercana y un contacto directo con las personas que se encuentran en situación de vulnerabilidad, así como la puesta en marcha de las líneas de ayudas, dirigidas a las personas autónomas, comercio, hostelería y afines que se hayan visto afectadas, bien por el cierre obligatorio de establecimientos o bien por una merma significativa en su actividad económica.

Entre las 100 medidas, hay actuaciones muy diferentes: desde organizar el teletrabajo del personal, medidas relacionadas con cierres de instalaciones, parques o espacios públicos, limitaciones a la agenda cultural y deportiva, redefinir el calendario fiscal ampliando los plazos de pagos, refuerzos de la brigada de limpieza y desinfección, llamadas individualizadas a las personas mayores y a los titulares de la tarjeta de discapacidad o refuerzo del Servicio de Atención Domiciliaria.

Se ha trabajado de forma transversal, coordinando cada actuación entre diferentes departamentos e instituciones supramunicipales, priorizando el objetivo de garantizar la salud de las y los andoaindarras.

El equipo de Gobierno quiere trasladar un agradecimiento al conjunto de las personas trabajadoras del Ayuntamiento, ya que han hecho posible con su implicación que la Institución haya funcionado de forma activa y ágil, hasta en los momentos más difíciles.

También quiere destacar la corresponsabilidad de las y los andoaindarras que, con su actitud ejemplar, han contribuido a proteger el interés general, para hacer frente al COVID19.

En los próximos días y semanas, seguiremos trabajando, como hasta ahora, para que la ciudadanía de Andoain sienta que su Ayuntamiento está a su lado y que, de forma conjunta y sin dejar a nadie atrás, avanzamos hasta conseguir superar al coronavirus. ¡Mucho ánimo y fuerza!

https://www.andoain.eus/documents/131314/0/2020.05.02_COVID19-kronograma-CAST.pdf/234e3eb6-9700-7a2d-d679-d5e95333f7c0